

2015 / 2016 ikasturtea

HAURREN OBESITATEAREN PREBENTZIOA EGITEKO
PROPOSATUTAKO OSASUN HEZIKETA PROGRAMA

Elisabeth Castañeira Huerta

Zuzendaria: Maria Isabel Elorza Puyadena

Zuzendarikidea: Maria Jose Alberdi Erice

LABURPENA

Sarrera: Osasunaren Mundu Elkartearen (OME) arabera, obesitatea “osasunarentzat arriskutsua den gantz metaketa ez normala edo gehiegizkoa” da eta mundu mailan gizentasuna osasun publikoaren arazo larrietako bat kontsideratzen da XXI. mendean. Gaixotasun honek prebalentzia altua duela ikusi da, komorbilitate larriak eman ditzakeela eta azkenik, arrisku faktore askok prebenigarriak direla ikusi da. Hau dela eta haur eta nerabeen obesitatea prebenitzeko Osasun Heziketa Programa bat proposatzen da.

Helburuak: Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeen obesitatea prebenitzeko Osasun Heziketa Programa bat diseinatzea da Gradu Amaierako lanaren helburua. Helburu nagusia lortzeko helburu zehatzak planteatu dira.

Metodologia: Lehenengo bilaketa bibliografikoa egin da hainbat datu basetan kontsultatuz: *Biblioteca Virtual de la Salud, Pubmed eta Cuiden*. Ondoren, EAEan zentratutako lana denez, Euskadi eta Espainia mailan garrantzitsuak diren ikerketak, artikulak, txostenak eta protokoloak bilatu dira web gune ofizialetan. Bukatzeko, obesitatearen inguruan informazioa bilatzeaz gain, bestelako gaiak jorratzen dituzten lan akademikoak ere bilatu dira, *Google Academico* deritzon bilatzailez baliatuz.

Garapena: Osasun heziketa programaren garapenean talde diana, helburu pedagogikoak, metodologia pedagogikoa, edukiak edo gaitegia eta kronograma zehaztu dira.

Ebaluazioa: Osasun heziketa programa era jarraitu batean osatzea eta hobetzea da honen helburua. Ebaluazioa hiru zatitan banatuko da: lehenengoan, emaitzak aztertuko dira; ondoren, prozesua eta azkenik, programaren egitura.

Ekarpen eta iritzi pertsonala: Erizaintzaren ikuspegiaren aldetik, osasun heziketa gaixotasunen prebentzioa eta osasunaren promozioa bermatzeko tresnaren garrantzia azpimarratzen da. Batez ere, umeei egiten den heziketa etorkizunean gaixotasun askok prebenitzeko erabili daitekeelako. Ondorioz, erizaina ezinbesteko papera betetzen du osasun hezitzailearen rolean. Atal honetan, haurren obesitatearen prebentzioa eraginkorragoa izateko hobekuntzak proposatzen dira. Bukatzeko, nahiz eta lana bide luzea eta oztopoz betetakoa izan, esperientzia oso aberasgarria izan da, profesionalki eta pertsonalki.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	1
2. Helburuak	4
3. Metodologia	5
4. Proiektuaren garapena	6
4.1. Talde diana	7
4.2. Helburu pedagogikoak	8
4.3. Metodologia pedagogikoa	8
4.4. Edukiak edo gaitegia.....	10
4.5. Kronograma	18
5. Ebaluazioa	19
6. Ekarpen eta gogoeta pertsonala.....	20
8. Eranskinak	25

1.SARRERA

Osasunaren Mundu Elkartaren (OME) arabera, obesitatea “osasunarentzat arriskutsua den gantz metaketa ez normala edo gehiegizkoa” da (1). Beste autore batzuek gaixotasun kronikotzat hartzen dute, multifaktoriala eta konplexua dena eta gorputzeko gantza edo gantz-ehuna handitzea eragiten duena ondorio larriak ekarriz (2). Gantz metaketa hau, kaloria kontsumoa eta energia gastuaren arteko desoreka baten ondorioz ematen da, eta beraz, prebenitu daitekeen eta kutsagarria ez den gaixotasun bat da (3).

Mundu mailan gizentasuna osasun publikoaren arazo larrienetako bat kontsideratzen da XXI. mendean. Izan ere, OMEren arabera, 2010. urtean mundu mailan 42 milioi haur zeuden gehiegizko pisuarekin eta 35 milioi obesitatearekin, gutxi-gora-beherako biztanleriaren %7ra helduz. Gainera, honen prebalentzia gorantz doa bai haurren eta bai helduen kasuan, 1980. urtetik aurrera loditasun tasak bikoiztu egin baitira (1).

“Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos” (OCDE) erakundeak 2014. urtean argitaratutako txostenean, Espainia mundu mailan 10. postuan kokatzen du haur eta nerabeen obesitate kasuen arabera, eta Europako herrialdeekin konparatuz 6. postuan %26-24eko loditasun tasarekin (4).

EAEko (Euskal Autonomia Erkidegoa) datuak berriz, 2005.urtean egindako nutrizio inkestatik lortu dira. Bertan, 4-18 urte bitarteko biztanleriaren %12,2a obesitatea pairatzen duela ageri da, gizonezkoen %12,7a eta emakumezkoen %11,7a. Loditasun prebalentzia altuena mutiletan 11-14 urte bitartean ematen da (%19,4) eta nesketan berriz, 15-18 urte bitartean (%15,6) (5).

Nutrizio desoreka honen arazoa identifikatzeko edota diagnostiko (CIE10-E66) egoki bat burutzeko, hainbat metodo erabili daitezke. Metodologiarik ezagunena eta gehien erabiltzen dena Gorputzeko Masaren Indizea (GMI) da. GMIa kalkulatzeko $\text{pisua(kg)/[altuera (m)]}^2$ formula aplikatzen da (1)(6). Emaitzak interpretatzeko OMEk ezarritako taulak kontuan hartzen dira (ikus 1. eranskina). Beraz, OMEren arabera emaitza 25 Kg/m^2 baino gehiago edo berdin ematen badu pertsonak gehiegizko pisua edukiko du eta 30 Kg/m^2 baino gehiago edo berdin berriz, loditasuna (1).

Hurrekin helduekin ez bezala, GMIa adinaren eta sexuaren arabera interpretatzen da. Horretarako taula batzuk diseinatu zituzten 2004. urtean Obesity Task Force-k (IOTF) eta Orbegozo fundazioak (3). Hala ere, pisua irabazteak ez du beti esan nahi gantz irabazi bat dagoenik. Horregatik, pisu igoera gantzagatik edo gihar-muskulaturagatik

den bereiztea komeni da. Horretarako perimetro brakiala, abdominala, pliege trizipiala edota beste teknika berezi batzuk erabiltzea gomendatzen da, adibidez, hidrodensiometria, Gurney eta Jellifferen monograma edota bioimpedanziometria (7) (8).

Obesitatearen eta gehiegizko pisuaren prebalentziaren atzean arrisku faktore asko daude elkarrekintzan. Hau da, arrisku faktore batek erlazio zuzena eduki dezake beste arrisku faktore batekin. Horrela geroz eta arrisku faktore gehiago izanez, desoreka hauek pairatzeko probabilitatea handiagotuko da (9)(10). Haurretan ematen diren arrisku faktore orokorrenak 1. Taulan ikus daitezke.

1. Taula- Enkid ikerketaren emaitzak, arrisku faktore orokorrak (2).

OBESITATEAREN ARRISKU FAKTOREAK	
Gizonetan prebalentzia altuagoa	Jaiotze pisua >3500g edo jaiotze pisu gutxi eta ondorengo hazkuntza azkarra.
6-13 urte bitarean	Edoskitze natural eza
Gurasoen ikasketa maila baxua	Gehiegizko kalori sarrera (>38%kcal)
Maila sozioekonomiko familiar baxua	Fruta eta barazki kontsumo baxua
Espainiako hegoaldea eta Kanaria uharteak	Sedentarisinoa eta ohitura ez osasuntsuak
Loditasuna duten gurasoak	Ariketa fisiko eza

Arrisku faktoreak etiologiaren arabera bi multzoetan banatu daitezke: lehenengoa primarioa edo exogenoa da, eta kasuen %95 baino gehiagoetan gertatzen da. Azpimota hau bizi-ohiturekin erlazio zuzena du, eta beraz prebenitu daitekeen mota da (11). Bigarren azpimotan berriz, obesitate endogenoa, sekundarioa edo organikoa daukagu, eta honek hainbat gaixotasun edo tratamenduen ondorioz agertu daiteke, hots, endokrinopatiak, nerbio-sistema zentralaren arazoak, antihistaminikoak hartzea etb. (3)(6).

Arrisku faktore prebenigarriak edota bizi ohiturekin erlazonatutakoak dira Espainia mailan gehiegizko pisuan edo gizentasunean zuzenki eragiten dutenak, hau da, elikadura, ariketa fisikoa eta ohitura ez osasuntsuekin erlazioa dutenak (12).

Alde batetik, elikadura OME eta Europar Batasunaren arabera, osasunaren determinatzaile garrantzitsua dela diote. Horregatik adinarekiko egokia den dieta bat jarraitzea gomendatzen da, orekatua eta askotarikoa. Hau lortzeko, egindako ikerketak *Elikadura piramide*a jarraitzea aholkatzen dute (ikus 2.eranskina). EAEko elikadura datuak aztertuz, 2007.urtean EAEko Osasun Inkestaren arabera, haurrak nahiago dute pasta eta arroz gehiago kontsumitu fruta eta barazkiak baino. Gainera, azken hauen kontsumo egokia ez dute 16-24 urteko biztanleriaren erdiak betetzen (12).

Bestetik, EAeko Osasun Inkestaren arabera, astean hiru alditan gutxienez 30 minutuko jarduerak egitea ariketa fisiko osasuntsua kontsideratzen da. Ikerketa askok baieztatu dute ariketa fisiko egokia mantentzea haurren hazkuntza eta garapen egokiarekin erlazio zuena duela (12). EAeko datuak ikusita, neska eta mutil sedentarioen ehunekoa kezagarria da, 4-15 urteko nesken kasua %58,9koa da eta mutilena berriz %35,5koa (13).

Ohitura ez-osasuntsuarekin erlazioatutako aktibitateak, sedentarismoarekin eta elikadura ez egokiarekin zerikusia dute. Gaur egungo haur eta gazteen arrisku faktoreak ordu asko telebista ikusten edo ordenagailuan pasatzea dira, ez gosaltzea, mokaduak hartzea otorduetatik kanpo, *snackak* edo gozokiak jatea, heldurik gabeko otorduak egitea, eskolara oinez ez joatea etab izango litzateke (6)(14).

Komorbilidadeari dagokionez, haur eta nerabeen obesitateak gaixotasun larriak sortzeko probabilitatea handitzen du bai epe luzera (helduaroan) eta bai epe erdi-motzean (15). Izan ere, herrialde garatuetan, gaixotasun ez-kutsagarriak %60aren heriotza tasa suposatuz zuten eta %47a morbiditatearenak. Halaber, gaixotasun hauek pertsonen bizi baldintzak asko okertzen dute, 8-10 urteko bizi esperantza murriztuz (1) (4). Gainera, gaixotasun hauek biologikoki, psikologikoki eta sozialki eragin dezakete, haurren bizi kalitatea okertuz. Komorbilidade garrantzitsuenak gaixotasun kardiobaskularrak, sindrome metabolikoa, minbiziak, arazo psikologikoak, arnas aparatuko arazoak edota diabetes mellitusa etab. dira. Gainerako gaixotasunak 3. eranskinean azalduko dira (7)(14)(15).

Esandako guztiaren ondorioz, Espainiako osasun eta kontsumo ministeritzak 2004. urtean NAOS estrategia jarri zuen martxan obesitatearen prebentziori, nutrizioaren eta ariketa fisikoaren promozioari buruzko plan integrala osatuz (14). Estrategia honetatik hainbat proiektu eta estrategia berri sortu dira obesitatearen prebentziora eta osasunaren promoziora (ikus 4. eranskina).

Aipatutako datuak aztertuz, gaixotasunak prebalentzia altua duela ikusi da, komorbilitate larriak eman ditzakeela eta azkenik, arrisku faktore askok prebenigarriak direla ikusi ondoren Osasun Heziketa Programa baten proposamena egin da.

Haur eta guraso orok jaso beharko lukete obesitatearen inguruko osasun heziketa sakon bat. Hala ere, proposatutako osasun heziketa hau 6-7 urteko haurretan mugatu da. Nahiz eta EAEn nerabearoan kasu gehiago eman, 6 urtetik aurrera adinetan, "errebote adiposoa" deritzon adipozitoen edo gantz ehunaren zelulen hazkuntza azkarra gertatzen da. Eta hazkuntza azkar hau gehiegizkoa bada, sortutako

adipozitoak helduaroan mantentzeko arriskua dute, horrela etorkizunean obesitatea pairatzeko arriskua handituz. Gainera, aditu batzuk osasun heziketa lehen bai lehen hasi behar dela esaten dute, epe luzera gaixotasunaren prebentzioa eraginkorragoa delako (16) (17) (14).

Osasun heziketa programa, Osakidetzako Politikaren arabera 2020. urterako haurren obesitatearen prebentzio eta osasun promoziorako ezarritako helburuak eta martxan jarritako ekintzen gehigarri gisa izango da (13). Beraz, Osakidetzako PAP (*ekintza programatuena plana*) oinarria hartuz eta gehigarri moduan, erizainak osasun heziketa emango du elikadura osasuntsua, ariketa fisikoa eta ohitura osasuntsuak transmitituz. Horretarako, adin taldearen ezaugarriak kontuan eduki behar dira (6)(18)(19).

Talde dianaren ezaugarriak identifikatzeko, Enrique Garcia Gonzalez egileak aztertutako Jean Piaget-ek egindako sailkapenaren deskribapena kontuan hartzen da. Honetan, haurren garapen intelektuala adinaren arabera lau prozesutan banatzen da. 6-7 urterekin bigarren prozesuan sartuko da, hau da egite aurreko garaia. Adin honetan, garapen motorra eta hizkuntza perfektionatzen hasten dira, pentsamendu sinbolikoa edo irudimenezkoa garatua dute dagoeneko eta egozentrikoki ulertzen dituzte gauzak. Ondorioz, osasun heziketa adinaren arabera moldatua izan beharko da, jolasez eta fantasiaz baliatuz (20).

Osasun hezkuntzaren eremuei dagokienez, bizi estiloan kokatu da, desoreka hau bizimodu osasuntsuarekin prebenitu daitekeen gaixotasuna baita (21).

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeen obesitatea prebenitzeko Osasun Heziketa Programa bat diseinatzea da. Horretarako helburu zehatzak planteatu dira:

- Obesitatea aztertzearen garrantzia justifikatzea
- Obesitateak eman ditzakeen arazoak izendatzea
- Obesitatearen ondorioak eta arrisku faktoreak identifikatzea
- Talde diana identifikatzea
- Helburu pedagogikoak formulatzea
- Metodologia pedagogikoak formulatzea
- Osasun Heziketa Programaren edukiak deskribatzea
- Kronograma planifikatzea
- Osasun hezkuntzaren ebaluazioa planifikatzea

3. METODOLOGIA

Lehenik eta behin, osasun heziketa programa bat garatzeko gaiaren inguruan informazio zientifikoa behar da. Horretarako bilaketa bibliografikoa egin da hainbat datu basetan kontsultatuz: *Biblioteca Virtual de la Salud, Pubmed eta Cuiden*. Hau gauzatzeko datu base bakoitzean deskriptoreen (DeCs eta MeSh tesaurora) konbinaketa desberdinak erabili dira operatzaile boolearrak (AND eta OR) erabiliz (ikus 2.taula). Ondoren, bilaketa gehiago zehazteko filtroak erabili dira. Bilatutako artikulua hauek kritikoki errebisatu eta barneratze eta kanporatze irizpideak kontuan hartu dira: ingelesez, gaztelera eta euskarazko artikulua, helduei egindako ikerketak ez hartzea, artikulua 2010. urtetik aurrerakoak izatea etab...

2.Taula- Deskriptoreen konbinaketa. Egite propioa.

DeCs		
Niño Adolescente Obesidad	Prevencion primaria Educación en salud	Prevencion de enfermedades Promocion de la salud
MeSh		
Child Adolescent Obesity	Primary prevention Health education Nursing care	Health promotion Quality of life

Gainera, bilaketa hasiera batean 2015eko abenduan egin zen, baino azkenean, 2016eko maiatzean bilaketa berriz egitea erabaki da, bilaketa bibliografiakoa guztiz eguneratzeko helburuarekin. Horrela, guztira 9 artikulua hautatu dira (ikus 5. eranskina).

Halaber, EAEan zentratutako lana denez, Euskadi eta Espainia mailan garrantzitsuak diren ikerketak, artikulua, txostenak eta protokoloak bilatu dira web gune ofizialetan: *OMEko web orrialdea, Asociacion Española de Pediatría, AECOSAN (Agencia Española de Consumo, Seguridad Alimentaria y Nutrición) web gunea, Asociacion Vasca de Pediatría eta Osakidetza web orrialdea*.

Obesitatearen inguruan informazioa bilatzeaz gain, bestelako gaiak jorratzen dituzten lan akademikoak ere bilatu dira, *Google Academico* deritzon bilatzailez baliatuz: osasun heziketa programa bat garatzeko txostenak eta manualak, EAEko eskola *curriculum*a etab.


Lan honetan, haurren obesitatea prebenitzeko osasun heziketa programaren proposamena egin denez, proiektua aurrera eraman ahal izateko, etikako komitearen eta osasun hezkuntza emateko aukeratutako instituzioaren baimena lortuko da. Hurrengo pausua, osasun heziketa hasi aurretik bi bilera egitea da, bat gurasoekin eta bestea irakasleekin, hauek haurren heziketan agente garrantzitsuak baitira.

4. PROIEKTUAREN GARAPENA

Osasun heziketa programa garatzeko, *osasun heziketa* kontzeptua aztertu da. OMEren arabera osasun heziketa, “hezkuntza jarduerak egitean datza, osasunaren inguruan ezagutzak handitzearen helburuarekin. Horrela dagozkion baloreak, jarrerak eta osasuna sustatzeko trebetasunak garatzea lortuko da” (21). Beraz, esan daiteke heziketa ez dela motibazioan, informazioan edota ideien inposaketan bakarrik oinarritzen, indibidualki osasunaren inguruan autonomia eta ardura lortzean baizik. Horrela, osasuntsuak diren aukeraketa egokiak egiteko trebetasuna lortzeaz gain, bizitza osasuntsua bultzatuko duen gaitasuna ere lortuko da (21).

Pertsonaren portaeran eta heziketan faktore askok eragin ditzakete, eta hauek aukeraketa osasuntsuetan zuzenki eragingo du. Elkarrekintzan dauden faktore edo dimentsio nagusienak biologikoa, soziala eta pertsonalak dira (ikus 3.taula) (21).

3.Taula. Osasun portaeratan eragina duten faktoreak (21). Moldaketa propioa



Osasun hezkuntza da erizainak duen tresna garrantzitsuetarikoa. Batez ere, lehen arreta mailan lan egiten duten osasun profesionalak, hauek biztanleriatik gertuen daudenak eta kontaktu zuzena dutenak direlako. Horregatik, osasun heziketa, hauen tresna izango da gaixotasunaren prebentzioan eta osasunaren promozioan, bai pertsonan, familian edota komunitatean (21).

Osasun hezkuntza programa garatzeko, talde dianaren portaeran eragina duten faktoreak kontuan hartuko dira. Horretarako, talde dianaren ezaugarriak aztertu dira.

4.1. TALDE DIANA

Osasun hezkuntza Urretxuko Gainzuri ikastola publikoan proposatzea erabaki da. Bertan, 6 eta 7 urte bitarteko haurrak Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan kokatzen dira. Eskolak jangela zerbitzua eskaintzen du *Auzolan* enpresaren eskutik. Gainera eskolaz kanpoko jarduerak ere proposatzen ditu: 6-7 urte bitarteko haurrentzako kirol jolasak eta jolasak antolatzen dira eta bertan, adinaren eta beharraren arabera ariketak egiten dira *Zerki* zentroak antolatuta.

Osasun heziketarentzako garrantzitsuak diren esparruak adierazi dira:

- **Zer egin?** 6-7 urteko umeei obesitateari buruzko osasun heziketa programa bat gauzatzea.
- **Zertarako?** Adin honetako haurren obesitatea pairatzearen prebentzioa egiteko.
- **Nori?** Gainzuri ikastolako Lehen hezkuntzako lehenengo mailako haur guztiei. 2 gela daude, totalen 25 haur daude matrikulatuta.
- **Kaptazioa nola?** Eskutitz bat bidaliko da etxera. Gainera, eskolan eta osasun zentroan kartelak jarriko dira.
- **Nork?** Zumarragako Osasun Zentroko erizainak egingo du osasun heziketa. Erizaina erizaintza komunitarioko edo pediatriako espezialista izatea izango litzateke egokiena.
- **Non?** Gainzuri ikastolan.
- **Noiz?** Kronograman zehaztutako egunetan.

Talde dianaren osasun beharrak aztertzeko, osasun heziketaren hasieran, hurrei galdetegi bat egingo zaie jolas bat izango balitz bezala. Galdetegi honekin, hurrek gaiaren inguruan dituzten ezagutzak, ohiturak eta motibazioa aztertu dira (ikus 4.4- Edukiak edo gaitegia, 0. gaia).

Gainera, proposatutako osasun heziketa, hurrek eskolan hartutako kompetentziekin bat egin eta beraien jakintzara egokitzeko, aurretik EAEan ezarritako eskola *curriculum*-a, bertako gaitegia eta hurrek lortu beharreko helburuak kontuan hartu dira. Bertan, obesitatearen prebentzioarekin erlazioa duten eremuak natura, gizarte eta kultura inguruaren ezaguera eta osasun hezkuntza dira (22).

Beraz, antzemandako beharrak eta eskolako *curriculum*-ean ageritakoa kontuan hartuz, helburu pedagogikoak finkatuko dira.

4.2. HELBURU PEDAGOGIKOAK

Helburu pedagogikoak honako bi multzoetan sailkatu dira: helburu orokorrak eta helburu espezifikoak. Azken hauek helburu orokorra lortzeko planteatu dira:

Helburu orokorra: 6-7 urteko umeek bere egunerokotasunean ohitura osasuntsuak sustatzea obesitatearen prebentzioa gauzatzeko helburuarekin

Helburu zehatzak: 6-7 urteko umeek hurrengoak lortuko dute:

- Obesitatearen prebentzioaren eta osasun haztearen garrantzia identifikatzea ikastaro amaierarako
- Ariketa fisikoa eta osasunaren arteko harremana deskribatzea ikastaro amaierarako
- Egunero hartu behar diren elikagai osasuntsuak identifikatzea ikastaro amaierarako
- Obesitatea ekiditeko gomendagarriak diren eta ez diren elikagaiak ezberdintzeko gai izatea ikastaro amaierarako
- Obesitatea ekiditeko gomendagarriak diren eta ez diren edariak ezberdintzeko gai izatea ikastaro amaierarako
- Gosari osasuntsu baten prestaketa laguntzarekin egitea ikastaro amaierarako
- Ohitura ez-osasuntsuak zeintzuk diren adieraztea ikastaro amaierarako

4.3. METODOLOGIA PEDAGOGIKOA

Programan erabiliko den metodologia edo estrategia hurren adinari eta ezaugarriei egokitua izango da. Hau da, hurren ezaugarriak eta egoera biopisikosoziala kontuan hartuko da, ikuspegi holistikoa edukiz.

Ikasleei ikasketa prozesuan laguntzeko, lehengo gaiaren inguruan dakitena ezagutu behar da, sentimenduak identifikatuz. Ondoren, ikasleei gaiaren inguruan egokitutako informazioa eman behar zaie. Azkenik, gaiaren inguruan erreflexionatu, hitz egin eta lortutako gaitasunak praktikan jartzea gomendatzen da (23).

Ikasketa prozesua lortzeko, hainbat metodo eta teknika desberdin daude (ikus 4.taula):

- **Adierazpen edo ikerketa teknika:** gai unitatea hasi aurretik erabiltzen den teknika da. Helburu nagusia, gaiaren inguruan sarrera bat egitea ikasleen esperientziekin eta ezagutzeekin. Horrela, gaitasun emozionala garatuko da.

- **Erakuste teknika:** gaiaren inguruan informazioa emateko, egiaztatzeko, ezagutzak berrantolatzeko erabiltzen den teknika da. Teknika honek gaitasun kognitiboak garatzeko helburua du.
- **Analizatze edo hausnarketa teknika:** errealitatean gertatzen diren egoerak analizatzeko, sentimenduak eta sorburuak identifikatzeko erabiltzen den teknika. Horrela gaitasun kognitiboak eta emozionalak garatuko dira.
- **Gaitasunezko teknika:** gaitasun pertsonalak, sozialak eta psikomotorrak garatzeko erabiltzen den teknikak da. Hau da, egoera baten aurrean aukeraketa egokia zein izango litzateke entrenatzean datza (21).

Teknika hauetaz gain, badaude beste teknika batzuk ere. Hauen artean, **agurtze teknikak** daude, programaren hasieran, konfiantza giroa sortzeko helburua duena. Gainera, gai unitate berria hastean, aurrekoaren errepassoa egitea aholkatzen da, gaiaren edukia finkatzeko (21).

4.Taula. Osasun proiektuaren edukiak garatzeko proposatutako metodologia teknikak. Egite propioa.

Teknika multzoa	Proposatutako teknika	Ezaugarriak
Adierazpen edo ikerketa teknika	Ideien tximista	Idei baten edo batzuen esanahia ematea. Ondoren denon artean erantzunak aztertu behar dira
	Galdetegia	Banaka edo taldeka galdetegi bat erantzun behar da. Ondoren denon artean erantzunak aztertu behar dira
Erakuste teknika	Irakurketa	Gai baten inguruan irakurtzea edo informazioa jasotzea. Ondoren talde osoarekin komentatu, diskusio bat egin edo informazioa partekatu behar da.
	Bideoa diskusioarekin	Gai baten inguruan bideo bat ikustea. Ondoren talde osoarekin diskusio bat edo informazioa partekatu behar da
Analizatze edo hausnarketa teknika	Ariketa	Banaka edo taldeka ariketa bat osatzea. Horrela, gaiaren inguruan hausnarketa egingo da. Bukaeran, talde osoarekin zuzenduko da
Gaitasunezko teknika	Gaitasunen erakusketa entrenamenduarekin	Gaitasun psikomotorra lantzeko erabiltzen den teknika

4.4. EDUKIAK EDO GAITEGIA

Osasun proiektuaren helburu pedagogikoak lortzeko, 5. taulan aurkezten den gaitegia proposatzen da. Gaitegi bakoitzean lortu nahi diren helburuak, edukiaren azalpena eta proposatutako jarduerak planteatu dira. Proposatutako jarduerak aldatu daitezke talde dianaren beharren arabera.

5.Taula. Osasun heziketaren gaitegia. Egite propioa.

0. GAIA	“Elkar ezagutu, elkar jolastuz”
1. GAIA	“Osasuntsu eta indartsu hazi nahi dut”
2. GAIA	“Ariketa fisikoaren super jolasa”
3. GAIA	“Elikadura osasuntsuaren super jolasa”
4. GAIA	“Gosari magikoa”

0.GAIA: Elkar ezagutu, elkar jolastuz

Helburuak:

- Osasun heziketaren partaide guztiak (haurrak, erizainak, ikasleak...), elkar ezagutzea eta konfiantzazko inguru bat sortzea.
- Osasun heziketaren inguruan haurren osasun beharrak izendatzea.

Proposatutako jarduerak:

0.1- Pinpon pilota jolasa

Haurrak agurtu ondoren, lurrean esertzeko eskatuko zaie guztion artean borobil bat eginez. Erizainak bere burua aurkeztuko du eta bere janari eta kirol edo jolas gustukoena zeintzuk diren adieraziko ditu. Ondoren, pilota ume bati pasako dio eta berdina egiteko adieraziko dio. Bukaeran haur guztiek aurkeztu egingo dira, elkar ezagutuz eta gaiari sartuz.

0.2- Zer uste duzue?

Osasun heziketa hasi aurretik, jolas moduan galdetegi bat egingo zaie. Erizainak galderak talde osoarentzat egingo ditu (ikus 6. Eranskina). Galdera bakoitzaren erantzuna semaforoaren koloreekin erantzungo da, horretarako haurrak 3 koloretako paperak izango ditu eta erantzunaren arabera papera bat erakutsiko dute:

- Berdea: Bai / askotan
- Horia: Ez dakit / erdizka / noizean behin
- Gorria: Ez / gutxitan

Erizainak erantzun bakoitza zenbat hurrek aukeratzen duen idatzi behar du. Horrela talde dianaren gaiaren inguruan beharrak identifikatuko ditu.

1.GAIA: Osasuntsu eta indartsu hazi nahi dut

Helburua:

- Obesitatearen prebentzioaren eta osasun haztearen garrantzia identifikatzea ikastaro amaierarako

Edukia:

Haurrak ohitura osasuntsuak hartzearen garrantzia indartu behar da, bereganatzen diren ohitura hauek helduaroan mantentzearen probabilitatea handia dutelako. Beraz, osasuntsu haztearen garrantzia transmitituz obesitatea eta beste gaixotasun batzuk prebenituko lirateke. EAEko Gobernuaren eta Nazioarteko Estadistika Insituaren arabera, haurtzaroan bereganatu behar diren ohitura osasuntsuak elikadura, loa eta ariketa fisikoa dira. Nerabezaroan berriz, tabakoa, alkohola eta drogak gehituko dira (12).

1.gai unitate honetan, osasuntsu hazteko eta ohitura osasuntsuak bereganatzeko urrats nagusiak aipatuko dira elikaduraren eta ariketa fisikoaren inguruan. Gainontzeko informazioa hurrengo gaietan emango da:

- Elikadura: adinarekiko egokia den dieta bat jarraitzea, orekatua eta bariatua. Denetik jan behar da kantitate egokian. Azukredun edariak eta janariak saihestu behar dira, baita orduz kanpo jatea ere (12)(14).
- Ariketa fisikoa: 5-17 urte bitarteko haurrek egunean 60 minutuko ariketa fisikoa egin behar dute, hainbat ariketa desberdin konbinatuz (24). Telebista ikustea eta bideojokoetan jolastea saihestu behar da, hauek egunean baino 2h baino gutxiago egitea gomendatzen da (14).

Proposatutako jarduerak:

1.1- Un gigante en la pandilla ipuina

Mapfre fundazioak osasun ohiturei buruzko bideo bat jarriko da proiektorean, 7:49 minutu irauten dituena (25). Bideoan emandako azalpenak ipuin fantasiosoaren bidez egiten da, haurrek ohitura osasuntsuak jolas moduan ulertzeko eta motibatuzeko. Lunatus irakasleak ohitura osasuntsuak transmititzen die haurrei, baina Alexek ez dio kasurik egiten eta gaixotu egiten da. Hau ikusten bukatu ondoren, erizainak diskusio txiki bat egiten edota beraien iritzia aztertzen saiatuko da (21). Horretarako galdera batzuk egingo dira:

- Zerekin sortu dute osasunaren edabea?
- Lunatusaren formula erabiliz (osasuntsu jatea, egunero gosaltzea eta ariketa fisikoa egitea) Alex gaixotzea ekidingo genuke?
- Zer kirol egiten du Paulak osasuntsu mantentzeko? Egokia dela uste duzue?

- Uste duzue garrantzitsua dela denetatik jatea nahiz eta ez gustatu elikagaien bat?

1.2- Osasuna bizitzan borobildu

Un gigante en la pandilla ipuinaren galderak erantzun ondoren, ikusitako bideoarekin erlacionatutako ariketa bat egingo da ikasitakoa barneratzeko (21). Horretarako haur bakoitzari fitxa bat emango zaio, bertan ohitura osasuntsuak aukeratu eta borobildu behar ditu (ikus 7.eranskina). Ariketa bukatzean, erizainak ariketa zuzendu egingo du eta zalantzak argituko ditu, bukaeran laburpen bat eginez.

2.GAIA: Ariketa fisikoaren super jolasa

Helburuak:

- Ariketa fisikoa eta obesitatearen arteko harremana barneratuta izatea ikastaro amaierarako
- Ohitura ez-osasuntsuak zeintzuk diren adieraztea ikastaro amaierarako

Edukia:

Ariketa fisikoa osasunaren determinatzaile garrantzitsu bat da, beraz, ariketa fisikoa ez praktikatzeak eragin negatiboa edukiko du haurren hazkuntza osasuntsuan. Izan ere, hainbat gorputzeko prozesuetan edo patologietan eragin dezake: Gaixotasun kardiobaskularretan (arteria koronarioetako gaixotasunak, hipertentsioa, muskuluen indarra...), gaixotasun metabolikoetan (Diabetes mellitus eta obesitatea), depresioan edota lokomozio aparatuan (oreka, hezurak..) (24).

OMEren arabera, 5-17 urte bitarteko hurrek egunean 60 minutuko ariketa fisiko moderatu-intentsua egitea gomendatzen da, eta geroz eta gehiagotan egin osasunarentzat onuragarriagoa izango dela diote. Gainera, ariketa fisikoa 4 multzoetan sailkatzen da praktikatutako behar den maiztasunaren arabera (24):

- Egunero: Egunero praktikan jarri beharrekoak. Horrela, haurrak ohitura osasuntsuak hartzen joango dira. Gainera, ariketa hauek ariketa fisiko moderatu-intentsuaren oinarria izango dira. Adibidez: eskailerak erabiltzea igogailua ordeztu, eskolara oinez joatea posible bada, kalean jolastea etab.
- 4-6 egun astean: jolasak (korrika egitea, jolas tradizionalak...) eta ariketa fisiko aerobikoak (futbola, igeriketa, eskubaloia...) proposatzen dira. Ariketa hauei 30 minutu baino gehiago eskaini behar zaie.
- 3 egun astean: muskulua indartzeko (saltoak, arte martzialak...) eta malgutasuna (dantza, gimnasia artistikoa...) handitzeko ariketak egitea

gomendatzen dira. Ariketa hauek muskulatura eta hezurak indartuko dute, haurren hazkuntzan lagunduz.

- Saihestu beharrekoak: sedentarismoarekin erlazionatutako ariketak daude. Hauek obesitatearen arrisku faktoreak izango dira. Adibidez: telebista ikustea, bideojokoetan ibiltzea etab. Egunean 2 ordu baino gehiago praktikatzean osasunarengan eragingo dute.

Proposatutako jarduerak:

2.1- Jolastea gustatzen zaigu!

Ideien tximista ikerketa teknika erabiliko da taldearen ezaugarriak antzemateko eta gaia haurren egunerokotasunera eramateko (21). Alde batetik, haurrei “zer gustatzen zaizue egitea zuen denbora librean edo eskolan ez zaudetenean?” galdera egingo zaie. Erantzuna adierazteko banaka egingo da, horretarako eskua altxatuko dute erantzuna eman aurretik. Erizainak, arbelean idatzitako ditu erantzun guztiak bi multzoetan banatuz: ariketa osasuntsuak (sokasaltoan jolastea, dantzatzea, igeri egitea...) eta sedentarismoarekin erlazionatutako ariketak (bideojokoak, telebista ikustea...).

Beste aldetik, “zer uste duzue osasunarentzat egokiagoa dela kirola egitea edo telebista ikustea?” galdera egingo zaie. Ondoren, erantzunen arabera azalpena emango du erizainak.

2.2- Erase una vez el cuerpo humano- Ariketa fisikoa

Ariketa fisikoaren inguruan eduki teorikoak azaltzeko *Erase una vez el cuerpo humano moverse es sano* liburua jarraituko da (26). Erizainak ipuina irakurriko du, liburuaren atal garrantzitsuenak eta erakargarrienak proiektorean jarriz aurkezpen moduan.

2.3- Ariketa fisikoaren piramidea

Azalpen teorikoak eman ondoren, hurrek informazioa barneratu eta praktikan jartzeko *ariketa fisikoaren piramidearen* jolasa egingo da.

Jolasa ulertzeko, lehenik eta behin semaforoaren kolorearen esanahia azalduko da, hau da, gorria gelditu, horia kontuz eta berdea aurrera esan nahi duela.

Umeei denbora librean egiten dituzten jarduerak semaforoaren kolorearen arabera eta piramidearen arabera sailkatuko dira:

- Piramidearen oinarrian, berdea, eguneroko bizitzan gomendatzen diren ariketak egongo dira. Adibidez, eskolara oinez joatea, etxera joateko eskailerak erabiltzea igogailua ordez etab.
- Piramidearen erdialdean, horia, astean hainbat alditan egin behar diren ariketa

fisikoak edota jokoak kokatzen dira. Adibidez: futbolean jolastea, dantza...

- Piramidearen gailurrean, gorria, ariketa sedentarioak egongo dira, hots, telebista ikustea, bideojokoetan ibiltzea etab. Ekidin beharreko ariketak dira.

Ondoren, umeak 3 partaideko taldeetan banatuko dira. Hauek 3 fitxa multzo jasoko dituzte; egunero egin behar direnak, astean hainbat alditan egin beharrekoak eta sedentarismorekin lotutako ariketak. Banatutako multzo bakoitzetik gehien gustatzen zaizkien 2 edo 3 marrazki aukeratu eta hauek margotu behar dituzte. Margotu dituzten marrazkian piramidean kokatu behar dituzte azaldutako metodoaz baliatuz. Azkenik, erizainak talde bakoitzeko piramidea zuzenduko du dagokion azalpenak emanez (ikus 8.eranskina).

3.GAIA: Elikadura osasuntsuaren super jolasa

Helburuak:

- Egunero hartu behar diren elikagai osasuntsuak identifikatzea ikastaro amaierarako
- Obesitatea ekiditeko gomendagarriak diren eta ez diren elikagaiak ezberdintzeko gai izatea ikastaro amaierarako
- Obesitatea ekiditeko gomendagarriak diren eta ez diren edariak ezberdintzeko gai izatea ikastaro amaierarako
- Ohitura ez-osasuntsuak zeintzuk diren adieraztea ikastaro amaierarako

Edukia:

Gaur egungo haurren elikadura mediterranearen dietatik urruntzen ari da elikadura desorekatua eta ohitura ez-osasuntsuak ezarriz. Halaber, janari azkarraren kontsumoa handitzen, fruta eta barazkien kontsumo jaisten, gatzaren kontsumo igotzen etab. ari da (27).

Elikadura osasuntsua izan dadin, orekatua eta askotarikoa izan behar da. Janaria 5 jatordutuan banatu behar da eta jatordu bakoitzak bere proportzioa mantendu behar du: Gosaria %20a, hamaiketakoa %10a, bazkaria %35a, merienda %10a eta afaria %25a. Elikadura osasuntsua sustatzeko honako hauek dira kontuan hartu beharrekoak (27) (28):

- Jatorri begetala duten elikagaien kontsumoa sustatu, egunero hartu behar diren elikagaiak baitira. Adibidez: fruta, barazkiak, zereal integralak (ogia, pasta eta arrosa), oliba olioia eta gantz gutxiko esnekiak.
- Arraina, arrautzak, haragia, lekak, fruitu lehorrak... aurrekoak baino maiztasun gutxiagoarekin kontsumitu behar dira.

- Kaloria handiko eta elikadura balio gutxiko janariak (opilak, snackak, gozokiak, patata frijituak...) haragi gorriak eta deribatuak, gurinak gutxi kontsumitu behar dira.
- Edarien artean ura da gehien kontsumitu behar dena, egunean 1 edo 2 litro. Azukre ugarikoak saihestu behar dira. (ikus 9.eranskina)
- Adinaren arabera janari kantitatea kalkulatu.
- Familiarekin otorduak egin, ordutegiak errespetatuz.
- Gosari osoaren ohitura hartzea.
- Kontuz ohitura ez osasuntsuekin: Orduz kanpo jatea, telebistaren aurrean gozokiak jatea...
- Ez erabili janaria sari edo zigor moduan

Proposatutako jarduerak:

3.1- Elikagaien supertaula

Haurrek egunero zer jaten duten eta zer ez aztertzeko, taula txuri bat emango zaie ikasle bakoitzari. Bertan astean zehar egunero jan dutena idatzi edo marraztu beharko dute (ikus 10. eranskina).

Ondoren, erizainak galdetegia jasoko du, eta erantzunak taldearen artean partekatuko dira. Aukera osasuntsuenak zeintzuk diren adieraziko dira dagozkion azalpenak emanez.

3.2- Erase una vez el cuerpo humano- Elikadura

Elikaduraren inguruan eduki teorikoak azaltzeko *Erase una vez el cuerpo humano la nutrición: salud y alimentacion* liburuja jarraituko da (29). Erizainak ipuina irakurriko du, liburuaren atal garrantzitsuenak eta erakargarrienak proiektorean jarriz aurkezpen moduan. Horrela haurren ulermena eta motibazioa indartuko da.

3.3- Semaforoaren platera

Azalpen teorikoak eman ondoren, haurrek informazioa barneratu eta praktikan jartzeko *semaforoaren platera* jolasa egingo da.

Jolasa ulertzeko, lehenik eta behin elikagaien multzoen sailkapenaren azalpena emango zaie. Hasteko, semaforoaren kolorearen esanahia azalduko da, hau da, gorria gelditu, horia kontuz eta berdea aurrera esan nahi duela.

Ondoren, elikagaiak 3 multzoetan banatuko dira, gutxi hartu behar diren elikagaiak, astean zehar nahiko hartu behar direnak eta bukatzeko, egunero hartu behar direnak.

Azkenik, semaforoaren kolorearen esanahia elikagaien 3 multzoekin lotuko da:

- Berdea: aurrera, egunero hartu daitezkeen elikagaiak, oso osasuntsuak dira. Adibidez: fruta, barazkiak, esnekiak...
- Horia: kontuz, astean zehar nahiko hartu behar dira, baina ez egunero. Adibidez: arrautzak, lekak, haragia...
- Gorria: gelditu, ez dira osasuntsuak beraz, hartu noizbehinka. Adibidez: gozokiak, opilak, azukredun edariak...

Ondoren, umeak 3 partaideko taldeetan banatuko dira. Talde bakoitzak orri batean marraztutako plater bat jasoko du. Platerak 3 zatitan banatuta egongo da. Taldeka plateraren zati bakoitza semafoaren kolore desberdinekin margotuko dute. Platera margotu eta gero, elikagai desberdinen irudiak emango zaizkie eta platerean kokatzen saiatu beharko dira lehen azaldutako sisteman oinarrituz. Azkenik, erizainak talde bakoitzeko platera zuzenduko du dagokion azalpenak emanez (ikus 11. eranskina).

4.GAIA: Gosari magikoa

Helburuak:

